

Esportazioak %13,6 gehitu ziren 2007ko laugarren hiruhilekoan

Urtean zehar euskal esportazioak %14,1 hazi dira, espainiarren tasa bikoiztuz

Euskal AEko **esportazioak** %13,6 hazi ziren 2007ko laugarren hiruhilekoan, EUSTATEk landutako datuen arabera. Atzerrian egindako salmentak 4.967,0 milioi eurora iritsi ziren 2007ko azken hiru hiletan, eta urtebete lehenago 4.373,6 milioira.

Guztizko **inportazioak** 5.146,7 milioi eurora iritsi ziren eta urte arteko %13,6 hazkundea lortu zuten. Hala ere, produktu ez-energetikoen inportazioak gutxixeago igo ziren, %12,2 hain zuzen.

Euskal Autonomia Erkidegoko kanpo-merkataritzaren bilakaera. 2006-2007ko laugarren hiruhilekoa. Mila eurotan.

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Urria-Abendua			Urria-Abendua		
	2006	2007	Δ %	2006	2007	Δ %
EUSKAL AE						
GUZTIRA	4.373.614	4.967.001	13,6	4.529.080	5.146.692	13,6
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	284.630	325.043	14,2	1.356.769	1.587.171	17,0
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	4.088.984	4.641.959	13,5	3.172.311	3.559.521	12,2
ARABA						
GUZTIRA	1.284.972	1.210.143	-5,8	810.320	1.121.052	38,3
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	1.897	2.204	16,2	14.442	14.110	-2,3
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.283.075	1.207.939	-5,9	795.878	1.106.941	39,1
BIZKAIA						
GUZTIRA	1.680.951	2.105.698	25,3	2.800.866	3.011.417	7,5
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	276.557	315.161	14,0	1.330.880	1.559.719	17,2
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.404.394	1.790.537	27,5	1.469.986	1.451.698	-1,2
GIPUZKOA						
GUZTIRA	1.407.691	1.651.160	17,3	917.894	1.014.224	10,5
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	6.177	7.677	24,3	11.447	13.342	16,6
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.401.515	1.643.482	17,3	906.446	1.000.882	10,4

Iturria: Eustat

Merkataritza-saldoak (esportazioak ken inportazioak) bilakaera negatiboa izan du; urtebete lehenagoko 155,5 milioi euroko saldo defizitariotik 179,7ra pasatu da, esportazioen inportazioen gaineko estaldura tasa %96,5 delarik.

Merkataritzako saldo ez-energetikoa 1.082,4 milioi eurokoa izan zen 2007ko laugarren hiruhilekoan, aurreko urteko aldi berean baino %18 gehiago; estaldura-tasa handitu egin zen: 2006ko laugarren hiruhilekoan %128,9koa zen eta 2007ko azkenekoan %130,4koa.

Europar Batasuna helburu duten esportazioak %6,2 hazi ziren eta hazkunde-tasak lortu zituzten Alemaniara (%10,1), Erresuma Batura (%17,6), Portugalera (%6,0) eta Belgikara (%8,5) bideratutakoek. Erritmo onean hazi ziren Poloniara (%53,7), Herbehereetara (%32,7) eta Txekiar errepublikara (%24,8) egindakoak, bolumen txikiagokoak izan arren. Italia, Mexiko eta Ameriketako Estatu Batuak helburu zituzten esportazioak %11, %16 eta %3,4 hazi ziren.

Europar Batasunetik etorritako inportazioak ere asko gehitu dira (%24,3); Alemaniatik %91,5, Herbehereetatik %50,5 eta Italiatik %24,0.

Europar Batasunarekiko merkataritza-saldoak okerrera egin du; aurreko urtean 683,2 milioi eurokoa izan zen eta 2007ko azken hiruhilekoan 300,0 milioikoa; ondorioz, estaldura tasan %18 puntu galdu ziren.

Muga-zergen sekzioen joerari erreparatuta, esportazioetan pisu handieneko hiru sektoreek honako bilakaerak izan zituzten 2007ko laugarren hiruhilekoan, urtebete aurreragoko egoeraren aldean: *garraio-materialak* %24,0 gehitu zituen esportazioak, *material elektrikoak* %19,5 eta *metalak eta euren manufakturak* %10,9. Hiruren artean esportazioen %73,4 hartu zuten.

Inportazio ez-energetikoen artean, hazkunde hauek nabarmendu dira: *garraio-materialak* %112,2; *papera eta beren manufakturak* %12,1; *plastikoak eta kautxua* %11,1. Jaitsi egin dira: *material elektrikoa* %-4,1 eta *metalak keta beren manufakturak* %-2,2.

2007ko laugarren hiruhilekoan esportazioetan hazkunderik handienak **Bizkaian** eta **Gipuzkoan** izan ziren; %25,3ko eta %17,3ko urte arteko tasak, hurrenez hurren. Arabako esportazioak, berriz, %5,8 jaitsi dira. Araban (%38,4) gehitu ziren gehien inportazioak; ondoren **Gipuzkoan** (%10,5) eta **Bizkaian** (%7,5).

2007. urteko balantzea

Euskal AEko esportazioak 18.834,3 milioi eurora iritsi ziren 2007. urtean, aurreko urtean baino %14,1 gehiagora. Aldi berean, guztizko inportazioak %9,4 gehitu ziren, eta produktu ez-energetikoenak %17,1. Bi fluxuen emaitza, esportazioen inportazioen gaineko estaldura tasa ehuneko lau puntuz hobetu da, 2006ko %96,3tik 2007ko %100,4ra. Atzerriarekiko euskal merkataritza balantzari bi urtez defizita izan ondoren, **2007an berriz positiboa da merkataritza saldoa**.


Euskal AEko esportazioen hazkundera Estatukoa (%6,8) halako bi da, eta, baita ere, euskal inportazioak gehiago hazi dira estatukoak (%8,0) baino.

2007. urtean esportazioek honako esparruetan izan zituzten gehikuntzarik handienak: *metalak eta horien manufakturak* (%23,3), *garraio-materiala* (%11,9) eta *material elektrikoa* (%13,1).

2007. urte osoan Gipuzkoan izan zen esportazioen gehikuntzarik handiena, %18,2. Bizkaiko esportazioak %15,3 gehitu ziren, eta Araban apalkiago: %7,5. Inportazioei dagokienez: Araban izan dute gehikuntzarik handiena (%19,9), gero Gipuzkoan (%15,5) eta Bizkaian (%4,7).

Euskal Autonomia Erkidegoko kanpo-merkataritza. (Joera)

EUROAK miloikotan



Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Patxi Garrido

Tlf: +34-945-01 75 13 Faxe: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp